

# HADE

## 1 MAILA

**Gaia: Dendak. Erosketak. Ohiturak. Zaletasunak.**  
**1 argazkia**



**Gaia: Dendak. Erosketak. Ohiturak. Zaletasunak**

### **Elkarrizketa bideratzeko galderak:**

- Zer ikusten duzu argazkian?
- Non daude?
- Nolakoak dira argazkiko pertsonak?
- Zer ikusten da atzean?
- Aurrealdean?
- Inoiz ikusi duzu horrelako lekuren bat?
- Noiz?
- Non?

## AZTERKETARIAREN EGITEKOA

**Gaia: A. Erosketak: non, nola, norekin...?**

### **Erosketak: non, nola, norekin...?**

#### **Egitekoa**

Non egiten dituzu erosketak? Norekin? Gogoko duzu erosketak egitea? Gai horri buruz hitz egingo duzu epaimahaikoen aurrean, 3/4 minututan.

#### **Zehatzago**

Azaldu zein diren erosketak egiteko dituzun ohiturak, nora joaten zaren (denda handi ala txikietara), zer erosten duzun, noiz joaten zaren, gustukoa duzun ala ez, bakarrik joaten zaren...

Leku on bat gomendatu erosketak egiteko, eta esan zergatik iruditzen zaizun leku ona.

Tartean, nahi baduzu, erosketak egitean gertatu zaizun pasadizo edo gertaeraren bat kontatu.

Agian, epaimahaikoen galderaren bat edo beste egingo dizute.

**Gaia: B. Nolakoak dira ikusten edota entzuten ditugun iragarkiak?**

### **Nolakoak dira ikusten edota entzuten ditugun iragarkiak?**

#### **Egitekoa:**

Ikusten edo entzuten ditugun iragarkiez (telebistan, irratan, kalean...) hitz egingo duzu, (freskagarriak, telefonoak, autoak, lurrinak, dendak, janariak, kosmetika gaiak...) epaimahaikoen aurrean, 3/4 minututan.

#### **Zehatzago:**

Azaldu zer motatako iragarkiak ikusten edo entzuten ditugun, kontatu nolakoak izaten diren protagonistak, paisaia, giroa... Deskribatu gogoan duzun iragarkiren bat eta esan zeintzuk dituzun gustuko edo zeintzuk ez.

Agian, epaimahaikoen galderaren bat edo beste egingo dizute.

# HADE

## 1 MAILA

Gaia: Oporrak. Zaletasunak. Ohiturak. Aisialdia

2. argazkia



Gaia: Oporrak. Zaletasunak. Ohiturak. Aisialdia

Elkarrizketa bideratzeko galderak:

- Zer ikusten duzu argazkian?
- Zertan ari dira?
- Non daude?
- Zein urtaro izango da?
- Zein kirol mota egiten dira urtaro horretan?
- Kirol hori egiten dituzu?
- Gogoan duzu antzeko lekuren bat?
- Nolako giroa izaten da?

## AZTERKETARIAREN EGITEKOA

Gaia: A. Neguko oporrak

### Neguko oporrak

#### Egitekoa

Neguan zein duzu oporretarako lekurik gogokoena? Zer gustatzen zaizu egitea? Zein da oporretan gustura egiten duzun kirola? Gai horri buruz hitz egingo duzu epaimahaikoen aurrean, 3/4 minututan.

#### Zehatzago

Azaldu azken oporretan edo gogoan dituzun neguko opor batzuetan, nora joan zinen, norekin, zer egin zenuten, kirolik egin zenuen, zein kirol, nola... Opor onak, txarrak... izan ziren.

Tartean, oporretako gertaeraren bat edo pasadizoren bat kontatu.

Agian, epaimahaikoek galderaren bat edo beste egingo dizute.

Gaia: B. Udako oporrak

### Udako oporrak

#### Egitekoa

Udan zein duzu oporretarako lekurik gogokoena? Zer gustatzen zaizu egitea? Zein da oporretan gustura egiten duzun kirola? Gai horri buruz hitz egingo duzu epaimahaikoen aurrean, 3/4 minututan.

#### Zehatzago

Azaldu azken udako oporretan edo gogoan dituzun opor batzuetan, nora joan zinen, norekin, zer egin zenuten, kirolik egin zenuen, zein kirol .... Opor onak, txarrak... izan ziren.

Tartean, udako oporretako gertaeraren bat edo ospakizunen bat kontatu.

Agian, epaimahaikoek galderaren bat edo beste egingo dizute.